

Hauek ez dira argi-kontuak

Edo ez behintzat argi-kontuak soilik.

Erantzukizun partekatua da.

Gauzak beste modu batean egitea.

Pertsonak erdigunean jartzea.

Balioak dira.

Justizia klimatikoa da.

Lankidetzeta, iraunkortasuna eta benetako aldaketa da.

Iraultza da.

Eta argia hori lortzeko hasiera besterik ez da.

Ez da soilik etengailuak konektatzea edo fakturak ordaintzea.

Bidegabea den sistema bat uxatzea eta berri bat eraikitzea da.

Beste eredu energetiko bat posible dela frogatzera etorri gara: eredu etiko, iraunkor eta kolektibo bat.

Kooperatiba bat gara. Komunitate bat gara.

Energia berriztagarria ekoizten dugu, autokontsumoa sustatzen dugu eta ezagutza partekatzen dugu.

Pertsonak ahalduntzea aldaketa piztea delako.

Ez dugu edonola hazi nahi.

Baliabide guztiak, ekintza guztiak, erabaki guztiak: dena da garrantzitsua eraldaketa lortzeko.

Gizarte- eta ingurumen-inpaktua lortzeko berrinbertitzen dugu.

Justizia klimatikoa, erantzukizun kolektiboa eta denontzako bizitza duina babesten ditugu.

Hemen ez dago bezerorik: hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea duten pertsonak daude.

Parte hartzen, erabakitzen eta eraldatzen duen komunitate aktibo bat.

Elkarrekin sareak ehuntzen, aliantzak sortzen eta bideak irekitzen ditugu.

Hauek ez direlako (soilik) argi-kontuak.

